



SARRERA OROKORRA

Ez dira, jakina, orriok kirolaren ibilbide diakronikoa egiteko tresnarik egokiena eta, gainera, hori Euskararen Aholku Batzordearen egitekoetatik urruti geratzen zaigu. Kirola giza-gertaeratzat aztertzeko, XX.mendeari begiratu behar diogu nahi eta nahiez, mende honetan izan baita aldaketarik handiena, bigarren erdialdean batipat. Aldaketa ez da berez etorri. Mendebaleko gizartean aisialdiaren kontzeptu iraultzaileak azal ditzake kirolaren loraldia eta hazkundea. Harantzago ere, mendebaleko gizartetik kanpo, garatze bidean daudenetan, bai eta garapen ahulenetakoetan ere, kirolak ahuldadea baino osasuna du erakusgai, sarri errealitate gordinaren ordezkio. Hurbilenekoari lotu behar gatzaizkio, ordea, eta arestian aipatutako kontestuari bi hitz berri erantsi nahiko genioke.

Horretarako, aisialdia berriro aipagai hartuko dugu. Burgesia eta aristokraziaren pribilegio hutsak zirenak, gaur egun guztien lorpen , eskubide eta betebeharrak bilakatu zaizkigu. Gutxiengoaren eremu estutik gehiengoaren aukera zabalera egin du jauzi . Kasuak kasu, salbuespenak salbuespen eta , beti ere, beste ezaugarri batzurekin, kontu zaharrak ditugu hamalau ordutako lan-egunak. Berrogei ordutako lan-astea dugu erreferentzi mende bukaeran, hogeita hamabostekoa ere eztabaida bizian dugularik. Beraz, ordu gehiago lanetik kanpo. Horri hertsiki lotuta, kontsumo-gizarteak ekarri digun dibertsifikazioa, aisialdiaren dibertsifikazioa, bidaietan, oporretan edo kirolean gauzatzen dena .





Aisialdiaren aukera, bestalde, ikaragarri zabala eta dibertsoa eskaintzen bazaigu, batipat administrazioak ziurtatzen dituen bitartekoei esker da, guztia ere gizarte-ongizatearen bidetik. Guztia herri-agintaritzari ez badagokio ere, herri-agintzaritzaren eskutik datorkigu, nagusiki, aisialdiaren aukera, aisialdi antolatua behinik-behin. Datu estadistikoak eskutan izan gabe, aisialdi-aukera zabal horretan kirolak, bai ikuskizun bai praktika moduan, duen presentzia gutxik ukatuko luke. Harreman estuak dira, beraz, kirol eta aisialdiarenak. Aisialdi-iharduerak lanetik kanpo egiten ditugu, eta kirol-iharduerak ere halaxe egiten ditugu, ikusle izan edo partaide izan. Kirolari profesionalak eta goi-mailakoak aldentuko lirateke lerro horietatik.

Kirolaren azterketak orri asko beharko lituzke, besteak beste azterketa konplexua baita, alderdi askokoa. Txosten honek helburu zehatzagoa du, euskara eta kirolaren arteko harremana aztertu nahi du eta horri lotuko gaitzaizkio nagusiki, nahiz eta tarteka kirola bera izango dugun ardatz.





GAUR EGUNERA ARTEKO BILAKAERA

Kirolak eta euskarak elkarrekin bide laburra egin dutela esan beharko genuke, hasteko. Euskararen normalkuntzaren bidea eta kirolarena ez daude hain urrun, halere. Aspaldiko gertaerak izanik ere, laurogeigarren hamarkadaren haseratik hona izan da bien garapena, egin daitekeen azterketarako nahikoa elementu ematen dizkiguna. Oro har, kirolaren esparruan euskarak izan duen presentzia erabat testimoniala eta marginala izan da. Urtetan kirola eta euskararen arteko harreman bakarra euskal kirolen esparrura mugatu daiteke mugatzekotan. Hor ere, halere, egoerak ez zuen inoiz normaltasun itxurarik izan, ez Iparraldean ez eta Hegoaldean ere. Pilota elkarte batzuetako zuzendaritza taldetan edota Federazio batzuetako pertsona batzuen ahalegin eskergarria kanpo, gurea den pilota bertan ere, bai Frantziako Pilota Federazioak bai Lurraldetako Federazioek atxikimentu gutxi agertu zuten euskararekiko. Urte luze-tan egoera hobetsuagoa izan zitzaketen kiroletan euskara normaltasunetik urrun ibili dela kontutan hartuta, dena esanda dagoela onar daiteke. Merezi du, halere, euskarari baino kirolari azken menderdiko gainbegirada egitea, aurretik gertatutakoa baztertuz.

Hirurogeita hamargarren hamarkadaren bukaera aldera arte aztergai gutxi dugu. Laburpenik osatuena ondorengo litzateke: Hegoaldean futbolari urtetako nagusitasuna eskaini behar zaio. Iparraldean, ordea, kirol-egitura garatuagoa lagun, aniztasuna onar dakioke kirolari, futbolaren nagusitasunik gabe. Bigarren baieztape-





na ere erraz defendi daiteke: batean zein bestean euskararen presentzia hutsaren hurrengoa izan zen . Garai hartako komunikabideetan presentziarik ez, ardura eginkizunetan euskaldunik ez eta sinbologi-mundua guztiz erdalduna.

Gaurko neurritara iritsi gabe, Iparraldean, beti ere, kirol aniztasuna nabarmenagoa zen hamarkada haietan. Hegoaldean, berriz, oso berandukoak dira futbolaren nagusitasuna hausteko lehendabiziko saioak. Aldaketa, modernizazioa , ekonomi-garapena eta kirol-egitura berritik etorriko da. Irakaskuntzara lotuta eta " *Formación del Espíritu Nacional* " delakoaren ildotik, eskubaloia, saskibaloia, atletismoa edo igeriketa bera garatzeko bidean jarri ziren. Hori guztia, halere, minimoetatik hurbil, Europako joeratik urrun, Espainiar Estatuan INEFeko ikasketek berandu arte ez baitzituzten sarbide izan unibertsitatean.

SHEErik gabe eta kirol-hezkuntza gehiena Euskal Herritik kanpoko OHOk irakasleen esku zegoelarik, euskarak toki gutxi zuen garai hartan . Irakaskuntza bidezko kirol-egituretan bitarteko gutxi zeuden eta zeuden gehientsuenak Euskal Herritik kanpokoak ziren bitartean, kirol federatuaren egoera antzerako ildotatik aztertu behar dugu. Kirolak berezkoak zituen ezaugarriak eta garai hartako inguruabar orokorra oinarri ditugu baita kirol federatuan euskararen presentzia ulertzeko. Kirol federatuaren egitura sostengatzen zituzten bi multzo nagusienak erdaldunak ziren eta izan dira urtetan: entrenatzaileak, batetik eta direktiboak, bestetik.

Iparraldean pilotaren antolakuntza Frantziako Pilota Federazioaren esku izan da eta da gaur egun ere. 1986rarte ez da izan Euskal Herriko Pilota Federaziorik. Federazio horrek , gainera, Euskal Autonomi Erkidegoko hiru lurraldeen ordezkaritza du. Nafarroak Federazio propioa du.





Bada, hemen, soziologiaren ikuspegitik aipamena merezi duen daturik. Zonalde euskaldunetan ere, kirolaren antolaketa-ardura, sarri, erdaldunen esku izan da. Euskal Herriko gizartean integratzeko bide errezenetarikoa izan zitekeelakoan, euskaldunen aldean erdaldun gehiagok izan ditu kiroletan bere esku ardura eginkizunak.

Iluntasunaren bukaera hirurogeita hamargarren hamarkadaren amaierari lotu behar zaio. Hamarkada bukaera hartan, gainera, izan zen ahaleginik eta batez ere euskararen normalkuntzak ere kirola saihesti behar ez zuela ikusi zuenik ere. Ahalegin solteak izan arren neurri batean gaur erdietsitakoak ekimen horietan izan zuten aintzindaritza eta horregatik zor zaie aipamena. Iribarri omenaldia egin eta han batu-tako diruari esker UZEIk tajutu zuen futbol-hiztegiak begi asko zabaldu zituela onartu beharko genuke, esparru askotan bezalaxe euskarak kirolarekin izan zezakeen loturak nekezs zuen sinesgarritasunik eta.

Kirolean euskarak izan zuen lehendabiziko sarbide egituratua, halere, administrazioaren eskutik etorri zen laurogeigarren hamarkadaren haserarekin bat. Gizarte-ongizatea bermatze bidean, lehen ez zeuden egitura berriak ugaritu ziren edonon. Kiroldegi berri ugari, kirol teknikari ugari udalen enplegatu bilakatu zen eta, batez ere, kirolaren gizarteratzeari ekin zitzaion indartsu. Oraindik tinko darraien uholde honek, jakina, euskarari mesede egin zion eta hortxe kokatu beharko genuke, bestalde, euskarak kirolaren esparruan izan duen historia laburra.





Besteak beste, administrazioaren itzalean sortu zen Euskadi Irrati Telebista komunikabidetan euskarak inoiz izan ez zuen tokia bereganatuz. Egun guztiz barneratua dugun hizkera bera duela hamar-hamabost urte arrotza, inoiz entzungabea eta hotza genuen. Kirolean euskarak lortu duen normalkuntzaren alderdi nagusia EITBk egindako biderei zor zaio eta baita ere bide horrek berarekin zorrarazi dituen aldaketei ere. Batipat, unibertsitatearen ekarpenari esker urte hauetan kirol esatari-eskola amaiezina sortu da eta alderdi horretatik normalkuntza sendotuta dago eta aurrerantzean ere hala izango dela aurrerik daiteke. Autonomi Erkidegotik kanpo, Nafarroan eta Iparraldean ETBk kirola euskaraz entzun eta ikusteko ziurtatu duen aukera ere aipagarria da, halaber.

Administrazioaren ekimena zabala eta anitza izan den arren, geure kirol egitura sendotzeko behar beharrezko zen beste ardatz bati egin behar zaio baita aipamena. Madril edo Granadara IVEFeko ikasketak egitera joan ordez, Gasteizen SHEEko aukera ere zabaldu zitzaizen etorkizuneko kirol hezkuntzaren profesionalei. Eskolak euskarazko adarra sendotu duen neurrian, euskararen jakitun den lizentziatutandana atera da eta horrek ere eragina izan du ikastetxe, administrazio eta kirol taldetan ere. EITBekin gertatu den bidetik, normalkuntzak berak sortu du testu eta material berri ugari. Oraindik ere ikasgai praktikotako batzuk euskaraz ematen ez diren arren, SHEE euskararen normalkuntzarako zutaberik nagusienetakoa da. Horrekin batera, Irakasleen Unibertsitate Eskoletako hezkuntza fisikoa adarrak ere irakasle euskaldunak ziurtatzen dihardu.

Administrazioak zuzenean edo partaide gisa, antolatzen duen eskaintzak du osasunik onena. Hor dugu, esaterako, eskola-kirolaren egitura erraldoia, azkeneko urtetan kirolaren ikuspegitik garapenik garrantzitsuen izan duen esparrua. Aniztasuna, aukera-zabaltasuna, diskriminaziorik eza eta kirol federatutak berezkoak ez dituen ezaugarriak ekarri ditu eskola-kirolak. Ikastetxeen eta administrazioaren kontro-





lari esker, egoera soziolinguistikoak aukera ematen duenean, hizkuntz-irizpideak zaintzen ditu eskola-kirolak. Gipuzkoan egoera soziolinguistikorik onena eta eskola-kirolaren garapenik handienak bat egiten dute, bestalde.

Kirolaren bi egitura nagusienak aipatu beharko genituzke, ezer baino lehen. Eskola-kirolari egin zaio aipamen eta bigarrenari egingo diogu, ondoren. Kirol federatuak osatzen du bigarren egiturarik handiena. Euskarari dagokionean, ez du beste kirol egiturek egin duten bide emankorra egin. Laurogeigarren hamarkadaren aurretik zegoenak ez du azterketa premiarike eta hamarkada horren ondoren egin dena ere ezin genezake alderatu orain artean ikusi ditugun kirol-egiturekin.

Udal batek kontratatzen duen kirol monitore edo teknikariari hizkuntz-eskakizuna eskatzerik dagoen moduan, kirol federakuntzaren egiturak ez ditu neurri batean administrazioak ezar ditzakeen baldintzarik jartzeko aukerarik eskaintzen. Gehienentsuenetan, borondatea da egitura horren ezaugarri nagusia, kirol batzuk, talde batzuk edota federazio batzuk salbu. Entrenatzaile edota direktibo arduetan lanean diharduten askok ezere truke lan egiteak administrazioaren ardurapean dagoen kirol egitura antola daitekeen eredutik aldentzera garamatza. Borondatezko jardunak datu objektiborik gabe uzten gaitu eta egin daitekeen azterketa bestelako eskemetatik egin beharko genuke. Zailtasun hori, esaterako, administrazioak kontrolatzen duen kirolarekin ez da ematen

Administrazioaren ardurapean dagoen egituraren inguruan aldaketa nabarmenak izan badira ere, motelago doakigu kirol federakuntzako aldaketa. Batetik, kasu askotan errelebu gutxi izan da, oraindik ere "betiko" direktibo askok darraite lanean, helduak, asko, eta jarraipen gabeko aurrikuspenekin. Egia da,





halere, profesionalizaziotik urrun ibili den kirol federakuntza azkenengo urtetan arrasto horretan sartzen ari dela piskanaka-piskanaka. Federakuntzek antolatzen dituzten prestakuntza-saioetatik monitore eta entrenatzaile tituludun ugari atera da, SHEEren ekarpena ere ezagutu dute kirol talde federatuek eta, azkenik, kirol talde eta federazioak, batipat, sendotu egin diren heinean egitura administratiboak sortu dira.

Bestelako datu berririk ere bada esparru honetan: betidaniko lurralde federakuntza indartsuen ondoan laurogeigarren hamarkadaren erdialdetik aurrera Euskal Federazioak egituratu ziren. Koordinazioa, antolaketa arrazionalitatea eta azken finean horren modan dagoen optimizazioa helburu bazituzten ere, nahasketa eta lehia nagusitu da sarri Lurralde Federazio eta Euskal Federazioen artean. Argitasunak mesede ekarriko lioke euskararen irizpideak argiago eta antolatuago plazatzeari begira. Baina hika-mikek irauten duten bitartean nekez ikusaraziko dizkiegu etorkizunak beharko lituzkeen irizpideak.

Bi multzo ikusi ditugu, nagusiki, orainartean: eskola-kirola eta kirol federatua, urtetan bata besteari bizkarra eman diotenak. Batetik besterako aldeak gutxitu egin dira, halere, azkenaldian eta oraintsu arteko zorrotasunak indarra galdu egin du. Egun elkarlanerako joera areagotu da, legeak ere malgutasuna ziurtatu duelako, talde federatuen esku dago neurri batean eskola-kirola antolatzeko ardura. Eskola-kirolaren eskaintzak aurre egin dezan nahi eta nahiezkoa da kirol talde federatuen ekarpena, batipat giza-baliabideei dagokienean. Egoera berri honek, administrazioari, ikastetxeei eskakizunak zorrotzeko aukerak emango lizkieke.



Kirolaren gizarteratzeak behera egin ordez, gorako bidea hartu duen seinale fenomeno berri baten aipamena ere egin behar da: Irabazi asmoz sortu eta ugaldu diren izaera pribatuko kirol zerbitzuak. Hiriek eskaintzen dituzten aukeren inguruan, hiritan kokatzen dira gehienbat zerbitzu horiek, baina joera herri-etara iritsi da eta bada hemen hizkuntz-politikak zaindu beharko lukeen hirugarren eremu bat.

Kirolari bereziki egokitutako hizkuntza politikaren ahalegin egituratuena lauogeita hamargarren hamarkadan zehar egin dira. Kataluniako kanpainak erreferentzi, kirolari zuzendutako hiru aipatu daitezke, bata bestearen atzetik egin ziren hiru. *"Euskara eta kirola beti lagun"* lelopean Oñatin lehendabizi, Donostian gero eta Laudion egin zirenak. Aurreko hamarkadaren bukaeran egin zirenei ondoren han eta hemen eman zaie jarraipena, kanpainen bidez edo era antolatuagoan. Hurrengo bi ataletan egingo dugu azkenaldian eta egun egiten dihardugunaren azterketa eta balorazioa. Gaur arteko ibilbide labur honetan jaso egiten dugu, besterik gabe. Azkenengo laupabost urtetan Deba Garaia eta Deba Beheko udalek egindako bidea da eremu honetan erreferentzi berriena eta aztergarriena. Argitaratu dituzten liburak, antolatu dituzten ikastaroak beste erakunde batzuk erakarri dituzte: beste bailara eta herrialde batzuetako udalak, Gipuzkoako Foru Aldundia, Eusko Jaurlaritza.



EGUNGO EGOERA

Ikuspegi ezberdinetatik egin daiteke gaurko egoeraren azterketa. Baikortasunetik begira, ETBk normalkuntzari damazkion indarra eta ziurtasuna erabatekoak dira. Duela hamar urteko zalantzak egun kirol zaletasun gutxiko ikusleen kexu bilakatu dira, kirolari ETBk eskaintzen dion tartea kontutan hartzen badugu. Dena den, gurea ez da orain ETBk eta munduko telebista gehienek kirolari arreta asko edo gutxi eskaintzen dioten ala ez juzkatzea. Guri dagokigun txostenaren ikuspegitik, inoiz ez asko. Inoiz ez asko, azterketaren beste alderditik abiatzen bagara. Kostata egingo dio aurre ETBk dagoeneko etxetara hurbildu zaigun eta urte gutxi barru datorkigun uholdeari. Paguzko kirol telebistak, kable bidez etorriko zaizkigunak, Television Españolak, Frantziako telebistak, paguzkoak ez diren telebista pribatuen aurrean ETBk duen tokia da etorkizuneko erreferentzirik behinena.

Kirolaren ardatzik nagusienetarikoa izanik, komunikabidetan euskarak egingo duen bideak erabakiko du ziurrenera euskarak kirolean izango duen tokia. Eta, egia esateko euskarak tresna gutxi ditu esparru erabakior horretan.

Ikus-entzunezkoetatik kanpo, gainerako hedabidetan ere gutxi antzeko presentzia du euskarak. Datu estatistikoetan herri honen egunkari-irakurtzaletasuna Europako garainetarikoa dela behin eta berriz agerian jarri da. Edonork daki, bestalde, idatzizko hedabidetan kirol orriek duten pisua, irakurleentzat erreklamorik nagusienetarikoa direlarik. *Euskaldunon Egunkariak* kirolari eskaintzen dion ahaleginak ere





hutsuneak ditu. Kirol informazioaren asteko izarra den astelehenetan ez da informazioa euskaraz irakurtzeko aukerarik. Indar gutxiko tresna da baita euskal hiztunen tradizio eta urtetako ohiturak aldarazteko.

Egunkari standarren aldamenean , gainera, kirol egunkariak ditugu eta horretan datuak adierazgarriak dira. Bai *Estudio General de Medios-ek* bai *Oficina de Justificación de la Difusión-ek* Autonomi Erkidegoan zabalduenak eta irakurrienak diren MARCA eta ASen inguruko datuak lekuko.

A) Audientzia (Irakurle Kopurua)

	AS	MARCA
Guztira Estat.	538.000	2.623.000
Autonomi Erk.	9.146	196.725
Araba	538	31.476
Gipuzkoa	1.614	41.968
Bizkaia	6.456	123.281

Iturria:E.G.M. Kontrolaren garaia: 1995eko urria-1996ko maiatza.



B) Zabalkundea (Saldutako ale-kopurua)

Estatuan guztia	111.810	474.242
Autonomi Erkide.	1.567	29.498
Araba	227	3.230
Gipuzkoa	602	7.410
Bizkaia	738	18.858

Iturria: O.J.D (Oficina de Justificación de Difusión). Kontrolaren garaia: 1995eko urtarrila-abendua.

Kirol informazioak duen pisua ez gutxiesteko hedabide horien irakurle eta salmenta-kopurua bera izatera orokorreko egunkari batzuek dituztenetatik oso urrun ez daudela ohartu beharko genuke.

Egunerokotasunetik kanpo, ugari dira bai Hegoaldean bai Iparraldean merkatuan aukeran dauden kirol aldizkariak, kirol jakin bati lotutakoak batzuk , orokorrak beste batzuk. Garbi esan daiteke euskarak hor ez duela asmatu, izan zitezkeen baliabideak antolatzeke ez dela gaitasunik azaldu eta, batez ere, gorabehera askoko merkatu horretan garaiz erantzuteke ez dela tresnarik antzematen, inoiz ez dela aurrerik hartzen. Bizkaia aldean oraintsu jaio dira bi kirol argitalpen berri, *KIROLDI* bat eta *CANTERA*





DEPORTIVA bestea eta zabalkunde-kopuru onak dituzte batak zein besteak. KIROLDIk astero-astero 13.000 ale saltzen ditu, CANTERA DEPORTIVAk 4.000. Ez dira, jakina, merkatuan dauden aldizkari bakarrak, baina bai egoera baten isla.

1.- Batetik, merkaturak bete samarra dagoen arren, oraindik kirol argitalpenentzako tokirik dagoela frogatu daiteke.

2.- Argitalpenotan presentzia aztertu eta euskarak, oro har, gizartean egunetik egunera ematen diren aldaketan aurrean erantzuteko ahalmen gutxi erakusten du.

Euskaingintzak izan al du, ba al du KIROLDI edo CANTERA aldizkarien berririk?. CICLISMO A FONDO, BBT, FOOTBALL, federazioen eskutik argiratzen diren PYRENAICA, PILOTARIK zerrenda luzea osatzen dute eta, batez ere, aipatutako azken bietan izan ezik, hurrengo atal batean aipagai izango dugun etorkizunean eman beharreko urratsetako baten aurrean gaude. Kirol hedabideena bukatzeko, ezin dugu ahantz, merkatura iritsi gabe federazio eta kirol taldeek osatzen dituzten buletin eta antzerako informaziobideak. Hor ere, kirol federatuak, oro har, hizkuntza politikarik gabeko iharduna duela kontutan hartuta, euskarak ez du tokirik.

1996ko irailaren 7an plazaratutako aldizkariak goi mailako kirola du aztergai. Zabalkunde nagusia Bizkaian badu ere, Gipuzkoa eta Araban ere erosi daiteke.

1995eko irailean jaito, oinarritzko futbola du ardatz. Bizkaian zabaltzen da.





Txanponaren bi aldeak aipatu ditugu egungo egoera aztertzeko. Kirol komunikabideena ikusi ondoren, kirolak dituen bestelako ardatzei gainbegirada egin behar zaie. Irakaskuntzaren ekarpenak, batipat, administrazioari lotutako egituretan profesional euskaldunak ziurtatu ditu. SHEEren bidetik, hizkuntza eskakizunak ere tarteko, egun Gipuzkoako udaletan lanean diharduten 41 kirol zuzendari- kudeatzaile edo teknikari arduradunetatik bik besterik ez dute euskara ikasteko ahaleginik egin. Hirugarren hizkuntza eskakizuna lortzeko ikasten ari diren lau teknikari ezik, gainerakoek erabateko hizkuntza gaitasuna dute euren lan-eginkizunak euskaraz betetzeko. Baikortasunaren seinale lirerateke Gipuzkoako datuok. Teknikari horien gaitasunak eskola-kirolean zaindu beharreko irizpideak ziurragoak egiten ditu. Baina egitura bera, eskola-kirolarena esaterako, beste modu batera garatu da beste herrialdetan eta horrekin batera ere aipatu beharra dago herrialde guztietan ez dutela Gipuzkoako masa kritikorik.

Profesionalak osatzeko prestakuntzaren aldetik eman diren urratsak ez dira nahikoak, oraindik ere. SHEEek ez du prestakuntzaren monopolioa eta hortik kanpo etengabeko prestakuntza-saioak egiten dira. Federazioen eskutik batzutan, Administrazioaren eskutik bestetan, oro har, normaltasunetik urrun dabil euskara. Kirol askotarako entrenatzaile-ikastaroetan, esaterako, euskarak ez du sarbiderik lortu eta hori, zalantzarik gabe, ezinbesteko oinarri litzateke hainbat kirol egitura euskalduntzeko.

Deba bailaran hasi eta Gipuzkoako beste bailara batzuetara zabaldu diren ikastaroak dira egoera hori zuzentzeko egin diren ahaleginik serioenak. Ahaleginari eta batez ere lortutakoari ezertxo kendu gabe, euskalgintzaren ikuspegitik egin ote diren eztabaida daiteke, gutxienez. Antolaketa horretan kirol teknikarien presentziak saioei erabateko normaltasuna eman badie ere, ez-ohikotasuna, apartekotasuna






eta tramite betetzeko ahalegin usaia ere hartu dio batek baino gehiagok. Ikastaro batzuk ez dira bete ere egin, gauzak ondo antolatu ez zirelako edo, barrutik antolatu ordez kanpotik antolatu direlako batzutan eta hori guztia euskarari ez dio batere mesederik ekarri.

Ildo beretsuan, Donostiako Kiroletako Udal Patronatuak egiten duen eskaintzaren barne, azkenengo bi urtetan aerobic eta gimnasia ikastaroak euskaraz eskaintzeak ez du ondorio onik ekarri. Arrakastatik baino porrotaz hitz egin daiteke. Hemen ere autokritika beharrezkoa da, aurrera begira gauzak zuzentzeko. Ikastaroei zabalkunde okerra egin zaie, eskaintzak alde guztietatik zuen berezitasuna horrenbeste nabarmenduz horrek erakarri ordez bezeroa uxatu ere egin du, bezeroak aisialdian normaltasunaren partaide izan nahi baitu eta ez du gimnasia ghetoaren mugetan egin nahi. Dei normalak behar ditu euskarak, baita horren ezaugarri moderno dituen kirolaren esparruan ere.

Ildo honi eutsiz, jorratu diren bide batzuk lagungarri edo kaltegarri izan diren gogoeta ere egin behar da, gaurko egoeraren azterketa egiterakoan. Kaltegarritzat jotzea gehigeriia ere izan daiteke eta agian mesedegarri ez direla izan aipatu beharko litzateke.

Laupost bat urte atzera egin behar dugu, gaurkoaren abiapuntua aurkitu nahi badugu. Administrazioko euskara zerbitzuak, euskara elkarteak eta euskararen inguruko zerbitzu ugari kirolak gizartean zuen pisuaz ohartu ziren, normakuntzaren ikuspegitik lehentasunezko esparrutzat hartzeko garaian ere adostasuna lortu zuen azterketak eta batez ere zerbait egin beharra edo zabaldu zen euskararen normakuntzaren inguruan lanean zihardutenen artean. Nahasi samarrak egin dira gauzak, halere, guztia batera egin nahian edo eta, kezkgarriena kirol munduaren aurrean euskagintzak sarri eman duen irudia.





Alde batetik, lasterketa itxura antzeman dute federazio askotan, merkatu premiaz edo bestearen aurretik iristeko egin diren ahaleginak sinesgarritasuna kendu dio hizkuntza politikari. Aldundia aurretik, Udala atzetik, euskara taldea horren ondoren bisitari izan dira federazioetan, zerbitzua eskainiz askotan, eta norbere eremuaren aitzikiaz. Batek herrialdea, besteak udalerrria eta besteak gizarte-esparrua ardura duelako, euskarak argitasuna behar du eta ez nahasketa bisita-ikurtzat. Nahasketaren ondoren, gainera, saioei jarraipen gutxi egin zaie eta " behartuta hasi eta bukatu gabeko iharduna " gelditu zaigu bukaeran.

Lehentasunetan asmatu ote den edota lehentasunik izan ote den ere gogoeta egin beharko genuke. Testu-premiak izanik ere, ihardun honek ez luke tramite usairik izan behar eta edozer itzultzen hasi aurretik ahaleginak ongi neurtu behar dira. Futbol entrenatzailearen perfilak ,tipologiak eta beharrak aztertuta erabaki beharko litzateke bere garaian *Futbolera*ko *Oinarriak* izeneko liburua itzulpena. Horren liburu mardula gazteleraz eta frantsesa komunikazio-hizkuntza duten entrenatzaile banaka batzuk darabilte eskuartean. Apaletan gordetzeko luxu askotxo dirudi euskararentzat. Liburu hori adibide, hemen ere elkarren arteko koordinazio-premiak du lehentasuna. Deba Garaiko udalen ekimenez argitaratutakoak eta SHEEren eskutik plazaratutakoak topo egiteak, berriro ere, lasterketa-itxura iristen zaio irakurleari, batez ere oso antzerako testuak direnean.

Zerbait egin nahiak, sarri, kirolak berezkoak dituen bide naturalak utzi eta kirolarenak baino euskararenak ezartzera eraman ditu zenbait. Horren arrakastatsu den eskiaren inguruan euskararen inguruko irizpideak ezarri nahi baditugu, antolaketa horretan ardura duten herri-erakunde eta enpresak izan behar dute gure erreferentzi eta balizko plangintza-kide. Euskara-irizpideak egokitu behar du berezko dinamika duen esparrura eta ametsak





alde batera utzi eta ez dezagun pentsa milaka gazte eta heldu erakartzen duen egitura oso bat esparru horretan guztia eskaintzerik ezin duen elementu bakarrera egokituko denik. Sendotuta dagoenari muzin egin eta aparteko bideetatik egitura minoritarioak sortuz eta euskararen mezu bakarraz eskiatzaile gutxi erakartzeko biderik eraginkorrena jorratzen ari gara. Egokitzapen-ahalmena behar du, beraz, euskarak kirola ere normalkuntzaren arrastotik sartu dadin.

Kirolak aurpegi ugari duela aipatu da sarreran. Txostenak nekez hartuko du guztia, nahiz eta baden guztien arteko loturarik. Ikusle ikuspegitik azter daiteke, jokalaria ikuspegia izan dezake, irakaskuntzari lotuagoa, masa-fenomenoa ere abiapuntua izan daiteke, kirol profesionala, komunikabideak. Guztia ere modu batera edo bestera ikutzen duelako, gaurkoaz, baina, batez ere, hemendik aurrerakoaz bi hitz aipatu beharko genituzke. Europako Elkartearen inguruabarrak kirolaren egituretan izango duen eragina, Boosman sententziak dagoeneko zabaldu dituen aukerak, D ereduko ikasleentzat ere kirol sinbologiaren ardatz hurbilenak dira eta izango dira etorkizunean. Gure talde profesionaletan jokalaria euskaldunen portzentaiak gora egin duen neurri berean, neurri berekoa izango da ziurrenera, batipat Europako herrialdetatik, etorriko den uholdea. Topiko izatera iritsi den auzune globala aipatu beharko dugu kirolaren dimentsio berria ere egokien berak azaltzen baitu.





AHULEZIAK ETA INDAR-GUNEA ETORKIZUNERAKO URRATSAK

A) IHARDUNA ANTOLATU

Kirolari begira egiten diren saio eta egitasmoak antolatu, arrazionalizatu eta koordinatuko dituen gunea edo egitura erabaki behar da. Egitura berriak sortzen ibili gabe, Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Politikarako Idazkaritzak izan beharko luke gidaritza, baldintza eta bitartekorik gehientsuenak bere esku baitaute. Unibertsitatean noiz sartuko den erabaki arte, SHEE ardurapeko erakundea du, batetik eta, bestetik, Kirol Sailordetzak kirolarekiko harremanak bideratzeko tresnarik gehienak ditu bere esku. Jakin badakigu Jaurlaritza orainartean ere ez dela kanpo izan; are gehiago hainbat egitasmoren partaide edo laguntzaile agertu da. Intentsitate aldetik legoke, halere, aldaketa-proposamen honetan. Gainerako administrazioei dagokien tokia eta partadaidetza ziurtatuko zaizkie, baina horren premiazkoa den antolaketa Jaurlaritzak hartu behar du bere gain.

B) KIROL FEDERATUAREN AHULEZIAK

Kirolari begira zehaztu beharko litzatekeen hizkuntza politikak hemen izango ditu zailtasunik handienak. Guztia ez da, jakina, multzo monolitikoa. Alde handiak daude elkartetik elkartera, herri batetik bestera, herritik hirira, lurralde batetik bestera, kirol batetik bestera eta federazio batetik bestera. Egitura kontutan





hartuta bakarrik, Futbol Federazioen eta beste askoren arteko konparazioak alperrikakoak lirateke eta horrek, jakina, lehentasuunak ezartzerakoan eragina zuzena izango du. Multzo osoaren errepasso laburra ondorengoa litzateke.

1.- Elkarte asko larri antzean zutik diraute. Gehienetan jende helduaren esku eta borondatezko ihardunari esker bizirik darraite. Egitura administratiborik gabekoak, ez lukete izan behar hizkuntza politikaren aldetik lehentasunik.

2.- Hiritan batipat , ordea, elkarte antolatuenak zerbitzu-enpresak sortu dituzte eta hainbat ikastetxek zerbitzu-enpresa hauen esku utzi dute kirolaren ardura. Hasi berria den joera honek indartzera joko duela dirudi eta honek bai izango lukeela hizkuntza politikaren aldetik lehentasuna.

3.- Elkarteen ondoren, jerarkian Lurralde Federazioak ditugu. Gutxi edo asko, guztiek dute egun, administrazioaren laguntzei esker, egitura administratiboa, liberatuak alegia. Kirolari begira tajutuko den plangintzaren ardatzetako bat izan behar du egitura horiei egokitutako hizkuntza plangintzak . Federazioetako buruak hauteskundeetako erabakien arabera aldagarriak diren muduan, administrariak, idazkariak eta gainerako profesionalek Federazioaren iharduna ziurtatzen dute, koiuntureratik kanpo. Beti ere plangintzaren barne, Jaurlaritzak Federazioetako langilego finkoari begirako plangintza egin beharko luke, beste eremu batzuetarako egin diren egitasmoen eskemak erreferentzi izan daitezkeelarik, Finantziazio-egitasmoa lagun, Jaurlaritza eta Federazioen artean dauden bestelako harremanak plangintza hau aurrera eramten lagundu behar dute nahi eta nahiez.





4.- Lurreldeez gain, Euskadiko Federazioei begira ere antzerako bideak jorratu behar dira. Karguetan gehiegi erreparatu beharrean, erakundeari iraunkortasuna emango diotenak behar dute arreta.

Langilegoaren euskalduntzeak lituzkeen efektu biderkatzaileak berehala zabalduko lirateke . Federazioek argitaratzen dituzten argitalpenetan euskarari presentzia eskaintzeko aukera, elkarteen-ganako proiektzioa , barne-produkzioan euskarak irabaziko lukeen tokia, horra hor plangintzaren egikar-itzapenak ekar ditzakeenak.

C) ENTRENATZAILE, MONITORE ETA TEKNIKARIEN PRESTAKUNTZA

Kostata euskaldundu daiteke esparruala entrenatzaile eta monitore euskaldunik gabe. Lehenxeago aipatu dugu, elkarreetan borondatez lan egitea, direktiboa izatea krisian dagoela eta antzerako eginkizunak beteko duen jende gutxi . Horretan, sarri, ezer gutxi planteatu daiteke. Bai, ordea, maila teknikoetan, nahiz eta, hemen ere, zenbait egoeratan borondateak bideratzen duen hauen lana. Dena den, ezaugarri eta baldintza hobeagoak ditugu hizkuntza politikaren ikuspegitik.

1.- SHEEren lanak jarraipena behar du eta orain artean jorratu ez dena lantzeko bidean jarri behar da.

2.- Bost urtetako karrera espezializatuaz gain, bada prestakuntza labor eta dinamikoagoa. Esparru honek ere lehentasuna behar du plangintzan eta guztia antolatzeko ezinbestekoa da Administrazioak, Federazioek eta Kirol taldeek antolatzen dutena ezagutu, jaso eta euskararen aldetik proposa daitekeena prestatzea, baina beti ere protagonista izango direnak kontutan hartuta eta indarrak ongi neurtuz.



3.- Entrenatzaileak eta monitoreak behar dituzten testuen inguruan ezertan hasi aurretik, premien azterketa zehatza egin behar da, eta horretan bai Federazio bai SHEEren iritzia eta proposamenak jasoko dira.

D) KIROL KOMUNIKABIDEAK

Batipat EITBren ekarpena hizpide izan da txostenean. Euskararen normalkuntzarako nahikoa al den galdera egin behar da, lehendabizikoz. Datuak eskutan, erdarazko kirol hedabide asko daude Euskal Herrian, irakurle eta ikusentzule asko dituena, informazio erakargarria ere bada eta hor euskara justu antzean dabil berezkoa duen erakargarritasun horretan zerbait eskaintzeko. EITB nahikoa ez bada, noren esku dago komunikabide horien sorrera?. Administrazioak ezin ditu hutsune guztiak estali eta hor ekimen pribatua behar beharrezkoa litzateke. Mimetismorik gabe, eta erdaraz dagoen guztia sortzea ezinezkoa dela kontutan hartuta, komunikabideetan zerbait sortu beharko dela aurreratu daiteke. MARCAren pareko produktua luzerako kontua izango delako, tarteko urratsak jorratu beharko dira aurretik.





E) IRABAZI ASMOZ SORTU DIREN KIROL ZERBITZU-ENPRESAK

Arrazoi ekonomikoak, erosotasuna, moda, gizarte-maila, kiroldegiak txiki gelditu direlako, arrazoi ugarirengatik gimnasileku eta kirolgune pribatu ugari ireki da han eta hemen. Fenomeno berri honi ere arreta egin behar zaio, ahuldu beharrean sendotzeko joera duelako agerian eta datuak lekuko. Hemen ere, lehenbailehen datuak jaso, mapa osatu eta plangintza egokitu beharko da. Hitzarmena izango da multzo honi begira jarraitu beharko den bidea.

